16. ALDIZKARIA - 2013ko urtarrilaren 24a

## 19. ORDENANTZA
## ORDENANTZA FISKALA, UDALAK ANTOLATZEN DITUEN KULTURA ARLOKO IKASTARO EDO JARDUERETARAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

***OINARRIA***

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluaren baimenaren babesean.

***KONTZEPTUA***

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udalak urtean antolatzen dituen kultura arloko ikastaro edo jardueretan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duen sarrera, matrikula edo antzeko beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantza batzuetan sartuta ez daudenean.

***KUDEAKETAKO ETA DIRU-BILKETAKO ARAUAK***

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

***TARIFAK***

6. artikulua.

6.1.-Aplikatzeko diren tarifek ordainduko dute betiere, gutienez, zerbitzuaren zuzeneko kostua; alegia, monitorearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua.

6.2.-Baldin eta ikasle kopurua ez bada zerbitzu zuzenaren kostua ordaintzeko adinakoa, ikastaroa hutsik geratuko da. Hala ere, ikastaroak multzoan harturik, horien zuzeneko kostua osorik berdintzen bada, zilegi izanen da kostura iristen ez diren ikastaroak antolatzea.

6.3.-Erroldatu gabekoen tarifa izanen da 6.1 atalean zehaztu den zerbitzuaren zuzeneko kostua gehi %25.